

Euskal astea



2017ko abuztuaren 25etik
irailaren 9ra

"1924tik ospatzen dugu Euskal Jai Eguna Zarautzen. Herria, gizartea eta festa bera ere asko aldatu dira ordutik hona.

Aurten, gainera, hilaren 9a larunbata izanik, jendetza espero da gure herrian. Bakoitzak nahi duen eran bizi dezala bere festa, baina, hori bai, besteekiko errespetuz jokatzera eskatzen dizuet. EZ beti da EZ. Festa nahi duzenoi, ONGI ETORRI! Urteko egunik zoragarriena izoratzeko asmoz datorrenari, berriz, AIO PELAIO!

Nonbait eten da tradizioaren katea, baldin eta egun osoko botiloia egiteko asmoarekin supermerkatutik karrotxo "hartu" eta hurrengo goizean hondartzara botatzea bada zuen plana. Azken urteetako festen ondorenak ikusita, kezkatzekoak dira, baita ere, jai giroan hainbatengan sortzen diren jarrerak. Aurten Zarautzko Udalak bereziki zainduko du adingabekoei tabemetan eta festa gunetan alkohola saltzeko jarrita dagoen debekua. Zarautzar gazteok zarete herriaren etorkizuna eta itzaropena. Ondo pasa, pasatu gabe.

Hainbeste maite dugun festa kuttun hau ahalik eta giro onenean mantentzea da zarautzar askoren nahia (baita usadiozko janzkera zaintzea ere). Desio horrekin bat eginez, Euskal Astearen baitan antolatuko diren ekintzetan parte hartzera gonbidatu nahi zaituztet herritar eta bisitariak.

Jai alaiak, baketsuak eta eraso sexistarik gabekoak goza ditzagula!
Ondo pasa Euskal Jaiak!"



Xabier Txurruka
Zarauzko alkatea



zaindu
ZARAUZKO UDAK
MUTAZA GABELEKIA. SARRERAKO GUTZIA



EUSKAL JAIETAN OHITURA
ZAHARRAK MANTENTZEKO
AHALEGINEAN HERRITAR GUZTIOI
ZUEN JANZKERA ZAINZERA
GONBIDATZEN ZAITUZTEGU.
ONDO PASATU JAIK!

Antolatzailea



ZARAUZKO UDALA
JAIK ETA EKITALDIK

L a g u n t z a i l e a k
AEK / Alproja Taldea / Euskal Herrian Euskaraz / Kultura Departamentua / Goiztarak / Imuntzo Trikitilari Eskola / Montexio Abesbatza / Jalgi Dantza Taldea / Arranoko Salsa Taldea / Motxian Bersto Eskola / Jesus Mari Olaizola "Txiliku" eta Mitxel Gorrotxategi / Aratz Olaizola, Olatz Leturiaga, Mattin Ostolaza, Aitor Amilibia, Eneritz Aulestia, Ainhoa Garayar / Nahiko Larri Trikitilariak / Goizeko Ihintza Txistulari Taldea / Gurekin Jai / Zarautz Abesbatza / Schola Cantorum / Prebentzio Zerbitzua / Turismo Bulegoa.

Oharra: antolatzaileek ez dituzte bere gain hartuko jai hauetan gerta daitezkeen istripuak. Hala eta guztiz ere, beharrezko jotzen den ekitaldietan DYA erakundea izango da.

Abuztuaren 25a, ostirala

22:00 Gaztelekuan, Bertsolari Gazteen XLI. Lizardi sariaren kanporaketa-saioa.

Abuztuaren 26a, larunbata

22:00 Gaztelekuan, Bertsolari Gazteen XLI. Lizardi sariaren kanporaketa-saioa.

Abuztuaren 31a, osteguna

18:30 Lege Zaharren enparantzan, txalaparta-tailerra haurrentzat (♫ Merkatu plazako lehen solairuan).

Irailaren 1a, ostirala

18:00 Lege Zaharren enparantzan, Bikote Gazteen Dantza Txapelketa (♫ Modelo aretoan).

Ondoren, Lege Zaharren enparantzan, Binaikako Dantza Txapelketa (♫ Modelo aretoan).

22:00 Modelo aretoan, Bertsolari Gazteen XLI. Lizardi saria. Ekitaldi berean XXXIII. Basarri saria Bertsopaper Lehiaketaren sari-banaketa.

Irailaren 2a, larunbata

10:30 Musika plazatik irtenda, Euskararen aldeko XXIII. Lasterketa AEK eta EHEk antolatuta (izen-ematea 10:00etan).

11:30 Lege Zaharren enparantzan, XXXIX. Auresku Txapelketa eta X. Soinu Zahar Txapelketa (♫ Modelo aretoan).

14:30 Musika plazan, XXXIII. Bazkari Herrikoa AEK eta EHEk antolatuta.

18:30 Musika plazatik, kalejira aldarrikatzailea AEK eta EHEk antolatuta.

20:00 Lege Zaharren enparantzan, BANDtzaldia Zarautzko Musika Banda eta AIKO taldearekin (♫ Merkatu plazako lehen solairuan).

23:00 Salberdineko aparkalekuan, dantzaldia Jodedera eta Bide Batez taldeekin.

Irailaren 3a, igandea

Haurren Euskal Jai Eguna

09:30 Zelai-Ondon, bola eta toka txapelketa.

10:30 Lege Zaharren enparantzan, dantzarien bilkura.

11:30 Lege Zaharren enparantzan, Alkate Txikiaren ongietorria (☂ Gaztelekuan).

Ondoren, dantzariak kalez kale.

12:00 Buruhandi eta erraldoiak trikitilariarekin.

13:30 Lege Zaharren enparantzan, haurrak familietan banatuko dira bazkaltzeko (☂ Gaztelekuan).

17:30 Kalejira Musika plazatik Iñurritzara, buruhandi, erraldoi, trikitilari eta Ustekabe txarangarekin.

Ondoren, dantzarien bilkura.

18:30 Iñurritzara, *Jalgi hadi dantzara* haurrentzako berbena eta puzgarriak.

20:00 Kalejira Iñurritzatik Musika plazara.

Irailaren 5a, asteartea

20:00 Lege Zaharren enparantzan, herriko taldeen jaialdia: "Gerezi garaiak" (☂ Modelo aretoan).

Parte-hartzaileak: Montetxio korua, Alproja Antzerki Taldea, Jalgi Dantza Taldea, Goizeko Ihintza Txistulari Taldea, Aratz Olaizola, Olatz Leturiaga, Mattin Ostolaza, Aitor Amilibia, Eneritz Aulestia eta Ainhoa Grayar, Arranoko Salsa Taldea, Motxian Bertso Eskola, Jesus Mari Olaizola 'Txiliku' eta Mitxel Gorrotxategi.

Irailaren 6a, asteazkena

19:30 Lege Zaharren enparantzan, Trikitilari Gazteen XXXVII. Txapelketa (☂ Modelo aretoan).

Irailaren 7a, osteguna

19:30 Modelo aretoan, Iragana, lahar eta larrosa herri-antzerkia.

Irailaren 8a, ostirala

19:00 Musika plazatik hasita, Bentzaharreko Mutiko Alaiak taldearekin kantu-jira.

20:00 San Frantziskotarren elizan, Zarautz Abesbatzak Salbea abestuko du.

Euskal Jai Eguna

Irailaren 9a, larunbata

7:00 Diana herriko kaleetan zehar.

8:00 Goiztarrak taldearen irteera. Antzinako ohiturak berreskuratuz, goizean, garai bateko pertsonaiak irudikatuko dituzte kalez kale.

8:30 Kalez kale, txistulariak, trikitilariak, dultzaineroak eta Iturengo tuntueroak.

10:30 Frantziskotarren elizan, Meza Nagusia, Schola Cantorumek abestuta.

Mezaren ondoren, Frontoi txikin, Goiztarrak taldearen eskutik, pilota partidak, herri-kirolak eta bertsolariak.

11:45 Alproja taldearen irteera (San Inazio kalea, Kale Nagusia, Musika plaza, Dorre Luzea parkea, Nafarroa kalea eta Munoa).

Jarraian, 12:00etan, Munoa, Galtzanblea antzezlan.

Eguerdian, Musika plazan, erromeria trikitilariarekin, txistulariarekin eta dultzaineroekin.

Ordu berean, Lege Zaharren enparantzan, erromeria trikitilariarekin.

13:30 Lege Zaharren enparantzan, harro lehiaketaren sari-banaketa.

14:00 Musika plazan, Lizarrako Larrain Dantza herrikoia dultzaineroekin.

17:30 Kalejira Musika plazatik Iñurritzara, trikitilari, dultzainero eta txistulariarekin.

Ondoren, Iñurritza zelaian, erromeria.

18:00 Salberdineko aparkalekuan, dantzaldia Guri5 taldearekin.

19:15 Iñurritzara, Lizarrako Larrain Dantza herrikoia dultzaineroekin.

20:30 Kalejira Iñurritzatik Musika plazara.

22:30 Musika plazan, erromeria trikitilariarekin.

22:30 Munoa, dantzaldia Trikititeens taldearekin.

22:30 Salberdineko aparkalekuan kontzertuak: Koban, Zezenaren Taldea eta DJ Jotatxo.



EUSKAL
JAIK
ZARAUTZ

	Ikuskizuna	Sarrera
Irailak 1	Bertsolari Gazteen Txapelketa	3 €
Irailak 7	"Iragana, lahar eta larrosa" antzerkia	5 €

Sarrerak salgai aldeztuak aurretik Turismo Bulegoan.